

Saioa Etxezarreta Larrañaga

D maila • 2 saria

Kaixo! Ni Saioa Etxezarreta Larrañaga naiz, 2003ko ekainaren 27an jaioa, 13 urte ditut eta Gabirian bizi naiz. Lehen Hezkuntza Gabiriako Balentzategi Herri Eskolan egin nuen eta, gaur egun, Beasaingo Loinazpe Institutuan DBH 2. mailan ari naiz ikasketak egiten.

Nire zaletasunak, bertsoez gain, hauek dira: gitarra jotzea, abestea, dantzatzea eta nola ez, lagunekin egotea.

Oso pozik nago sari honengatik, nire lehenengo saria baita. Ez ez den azkena ere izaten!



BERDINTASUNA

Doinua: Aitorren hizkuntza zaharra

Diskriminazioak
Egiten dituzte
Nola badagon hemen
Hainbat handi uste
Eskaera batekin
Horrenbeste urte
Bakarrik berdintasuna
Eskatzen da aske

Berdintasunerantza
Pausoa emanda
Ezin degu onartu
Egia esanda
Andrea lanean ta
Gizona etzanda
Pasa beharra daukagu
Jarritako langa

Urrun geratzen dira
Ai argi izpiak
Bizitzako etapak
Horren garestiak
Hautsi beharra daude
Nire ustez biak
Pertsonaren aurkako
Jarrera guztiak

Ez gera aspertuko
Gu hauxe esaten
Amestu egiten deu
Ta segi amesten
Zer ote den ametsa
Jende zorionsu bat
Herri libre baten